

GUGGENHEIM BILBAO

PRENTSA OHARRA

Michael Fakesch eta Chris De Luca, Funkstörung, martxoko Art After Dark saioaren protagonista

Marc Piñol, hainbat aldiz urteko DJ onena izendatu dutena, alemaniarren aurretik izango da agertokian

Martxoaren 11n (ostirala) izango dira Michael Fakesch eta Chris De Luca Guggenheim Bilbao Museoko Atrioan, Art After Dark saioan. Fakesch-ek eta De Luca-k **Funkstörung** sortu zuten Rosenheim-en, Munichetik gertu. Hainbat disko kaleratu zituzten Bunker eta Compost diskoetxeekin, baita haiek sortutako Musik Aus Strom etxearekin, eta artista handien lanak nahastu zituzten, besteak beste, Björk, Wu-Tang Clan eta Jean-Michel Jarrerenak. 2000. urtean haiek sortutako abestien lehen diskoa atera zuten, *Appetite For Disctruction* (Studio !K7) eta *glitch hop* generoari hasiera eman zioten horrela. 2005ean hamargarren urteurrena ospatu zuten *The Return To The Acid Planet* (!K7) diskoa kaleratuz eta ondoren bakarkako ibilbidean lan egiteko eten bat egin zuten. Hamar urteren buruan itzuli dira eta Funkstörung izeneko diskoa kaleratu dute, Museoan aurkeztuko dutena.

Aurretik, 23:00etan, **Marc Piñol** katalak ipiniko du musika. 1994tik musika-kazetaria da eta 1999tik DJ lanetan dihardu. Bartzelonako Nitsa klubean hasi zen eta bertako DJ egoiliarra izan zen 2013 arte. Tarte horretan hainbat aldiz izendatu dute urteko DJ onena Espainiako musika hedabide gailenek. Askotariko lanak egiten ditu eta Andrew Weatherall, Todd Terry, DJ Krush, Mr Fingers, Michael Mayer, Dave Clarke eta beste askoren kontzertuei hasiera eman die. Gaur egun Piñolek nahasketak eta hark sortutako kantikak kaleratzen ditu John Talaboten Hivern Discs diskoetxearen bidez.

Daniel B. Tarragonan jaio zen 1977an eta duela 2 urte bilbotar sentitzen dela erabaki zuen. 1980ko hamarkadaren amaierako mediterraneoko klubetan entzuten zen *underground* musikaren alderdi ilunenarekin eman zituen lehen urratsak. Askotariko estiloak landu ditu, *electronic body music*, *synthpop*, *new wave*, *nu disco*-ren oroitzapenak, *indie dance*, *deep & progressive house*, besteak beste; gaur egun, berriz, *minimal wave*, *synth wave* soinuak eta "low bpm's" delakoaren elektronika iluna jorratzen ditu, betiere, dantza-pista zorrotz eta kalitatezkoekin bat etorriz.

Martxoko Art After Dark saiora bertaratzen direnek ireki berri den *Andy Warhol: Itzalak* erakusketaz, Ho Tzu Nyen-en *Ezagutzen ez denaren hodeia* bideoinstalazioaz eta *Guggenheim Bilbao Museoaren Bildumako maisulanak* erakusketaz gozatzeko aukera izango dute.

Sarrerak s(18 urtetik gorakoak): 13 € publiko orokorra eta 9 € Museoaren Lagunak. Ikusle kopuru mugatua.

Dagoneko salgai txarteldegian eta www.guggenheim-bilbao.es.webgunean.